

noaia

Usurbilgo Udala: "Euskaldun berrien ekarpena aitortu eta eskertu nahi dugu"

Herriko sortzaileen lanak topatuko dituzue Durangoko Azokan

Lau txapela eskuratu ditu Pagazpe Elkarteak



Usurbilgo

Txanponarekin,

erosketak %10 merkeago

**Abenduan
60 eurotako
erosketagatik
OPARIA*!**



**jostailu denda
xirinbolo**

**opariak bukatu arte*

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOIA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

**·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)**

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

**12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Indarkeria sexistaren aurka

Azaroak 25eko Indarkeria Sexistaren Kontrako Eguna, emakumeenganako indarkeriaren aurkako salaketa, beste behin, plazara ateratzeko eguna izan zen herri eta hirietan. Baita Usurbilen ere. Matrakak Talde Feministak deituta, "Hau ez da gure bakea! Sentitu, pentsatu eta ekin autodefentsa feministari!! aldarripean, elkarretaraztea egin zuten frontoian. 30 bat lagun bildu zituen hitzorduak.

Kafe-tertulia emakumeentzat, abenduaren 12an

Patriarkatua izango dute hizpide Matrakak Usurbilgo Talde Feministak, emakumeentzat antolatutako saio berri honek. Kafe tertulia, abenduaren 12an goizeko 11:00etatik aurrera Potxoenean. Hitzorduan parte hartzeraz animatu nahi dute, baita hamaiketako ematera ere, "elkarren artean une polit bat pasatzeko. Geuk ere zerbait emango dugu".

Ahotan hartuko duten gaia, aipatu moduan, patriarkatua. "Patriarkatuaren ardatz nagusietako bat, eta beraz, emakumeen esplotazio eta



Gero eta babes zabalagoa izaten ari dira eraso sexisten aurkako mobilizazioak.

menderakuntzarena, lanaren banaketa sexuala eta eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketa dela identifikatzen da. Teoria feministaren esparruan maneiatzen diren hainbat

termino agertzen dira. Terminook emakumeen aurkako indarkeria, diskriminazioa eta berdintasun eza izendatzeko baliatzen dira (sexismoa, patriarkatua, androzentrismoa...)"

Laburrean

Posta bidezko bozka, abenduaren 10era arte

Abenduaren 20ko hauteskundeetan herrian egoteko moduan ez bazaude, bozka aurretik emateko aukera duzu. Posta bidez bozka emateko epea abenduaren 10ean amaituko da, eta Correos bulegoan egin behar da.

Gripearen aurkako kanpaina luzatu egin dute

Azaroaren 30era arte finkatua zegoen epea, abenduaren 18ra arte luzatzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Osasun Sailaren esanetan, ez baitute inor txertatu gabe geratzerik nahi. Informazio gehiago anbulatorioan: 943 362 013.

Inauteri Festarako gai hautaketa

Otsailaren 6an ospatuko da eta zure proposamena jaso nahi dugu, elkarte@noaua.eus helbidean. Idatzi bestela, Txiribogan, Aitzagan, Irratin, Txirristran, Bordatxon eta Iratxon ipini ditugun orrietan, abenduaren 3a baino lehen.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorak: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda, publicitate@noaua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzio@noaua.eus: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Ilazki Gaintza

Azaroaren 25aren harira

Duela astebete eskas aldarrikatu genuen emakumeen aurkako edozein indarkeriarik gabeko jendartea nahi dugula, azaroaren 25a zela-eta. Beldurgarria da zenbat emakume erailtzen dituzten hilero: gure inguruan eta gungandik urrun ere. Matxismoak erailtzen gaitu.

Larriena zera da, ohitu egin garela irratia edo telebista piztu eta “beste emakume bat eraila/bortxatua izan da festetan” entzutera. Harrigarria dela pentsatzen dugu eta gure bizitzarekin jarraitzen dugu: gosalduta, lanera joan, gim-

nasiora, pote batzuk lagunekin eta etxera. Besterik gabe, zer egingo dugu bada? Baina nola zer egingo dugu? Ezin dugu ezer pasa izan ez balitz bezala geure egunerokotasunarekin jarraitu. Salatzea beharrezkoa da, borrokatzen jarraitzea.

Badirudi horrelakoak ez zaizkigula guri pasako, baina edonori pasa dakioke. Azkenaldian emakumeak ahalduntzeko autodefentsa feminista ikastaroak ugaritu egin dira. Horrelakoak beharrezkoak ikusten ditudan arren -nik neuk ikastaroa egin nuen duela urte pare bat-, kezkatu egiten nau gaiak. Ugaritu

egin badira, beharrezkoak direlako da: beldurrez bizi garelako, beldurrez bueltatzen garelako bakarrik etxera. Baina, zergatik jarraitu behar dugu guk gaia lantzen, erailtzen gaituztenak gizonezkoak badira? Ez litzateke beharrezkoa gu ahalduntzearekin batera gizonezkoak euren pribilegioez jabetu eta jarrerak aldatzea?

Zergatik joan behar dut beldurrez gauetan etxera noanean? Zergatik izan behar dut mobila eskura badaezpada ere? Zergatik? Aske bizi nahi dut eta ni ahalduntzen joan arren, nire ingurukoek ez badute jarrera aldaketarik egi-

teko inongo asmorik, ezin izango dut oso urrutira heldu. Denon jarrera aldaketa behar da, denok osatzen baitugu jendartea.

Jendarte aske bat nahi dugu. Helburua ez da nolana hikoia, baina denon artean lortuko dugu! Hezkuntzan parekidetasuna landuz, komunikabideek albisteak behar bezala zabalduz, maitasun erromantikoa gure bizitzetatik kanporatuz, etab.

Azaroaren 25ean aldarrikatzen duguna egunero gogoratu behar dugu denok aske izatea lortzen dugun arte.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | **Ilazki Gaintza** | Idoia Torregerai | Luis Aranalde

Ika-mika

Aldarrikapenetik gauzatzera, erabakiaren aroan sartzera goaz

2013ko ekainean sortu zen Gure Esku Dago ekimen herritarra, erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida lokaltzatetik atera eta gizarte-ratzeko asmoarekin. Oinarrizko hiru printzipio lematzat hartuta (Herri bat gara. Erabakitzeko eskubidea dugu. Herritarron garaia da.), ilusioz eta era positibotean aritu gara lanean, berandu baino lehen, erabakitzeko eskubidea herritar guztion topalekua bihurtzeko helburuarekin.

Azken bi urte hauetan ekitaldi ezberdinak antolatu ditugu herri nahiz nazio mailan; Durango

eta Iruñea lotu zituen giza kate historiko hartatik hasita, ekitaldi xume nahiz masiboen bidez, aldarrikapena Euskal Herriko txoko guztietara eramaten saiatu gara.

Baina ez ginen jaio urteetan zehar aldarrikatzen ibiltzeko, erabakitzeko eskubidea praktikara eraman nahi dugu guk. Lehen aldarrikapen fase baten ondoren, eta Eskura hausnarketa prozesua igarota, Erabakiaren Aroa hasi dela uste dugu; iritsi da pauso berriak emateko garaia. Aro berri honen lehen erakusgarri izango dira Goierri,

Ispaster eta Dima, 2016an herri-galdeketa egiteko erabakia hartu baitute jada. Lehendabiziko horien atzetik etorriko dira beste herri-galdeketa asko.

Erabakiaren Aroa indartsu hasi nahi dugu Usurbilgo GEDko partaideek eta horretarako gizarteratze prozesuari azken bultzadabata eman nahi diogu 2016. urtean. Orain arte antolatutako ekitaldietara hurbildu ez zaigun jende horrengana ere iritsi nahi dugu, erabakitzeko eskubidea gauzatzeko bidea guztion artean osatzea baita helburua.

Gauzak horrela eta urtea go-

gotsu asteko, Borondateen Kri-seiluak ekitaldia antolatu dugu abenduaren 31rako. Urte Zahar egunean, ilunabarrean elkartuta, urte berrirako desio bana eskatu, kriseiluan idatzi, eta zerura jaurtitzeko deia luzatzen dizuegu herritarroi. Kriseilua lortzeko lehen aukera abenduaren 4an izango duzue, frontoi inguruan jarriko dugun mahai ibiltarian.

Usurbilgo GED

Herri bat gara. Erabakitzeko eskubidea dugu. Herritarron garaia da.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: abenduak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 5.

Udalak “Pariseko erasoak irmoki salatu eta arbuiatzen ditu”

Azaroaren 13an Parisen izandako atentatuak irmoki salatu eta arbuiatu ditu, azken osoko bilkuran EHBilduk aurkeztu eta udalbatzak onartu zuen mozioaren bidez. Testu honekin, Udalak “bere samina adierazi nahi die hilik edo zauriturik izan diren herritarrei eta haien familiei. Horrez gain, gure babes osoa eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu Frantziako estatuko herritarrei une larri hauetan”.



Mozioren bitartez, “gure babes osoa eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu Frantziako Estatuko herritarrei une larri hauetan”.

Moziok gaineratzen duenez, “Udal honek giza eskubideen eta oinarrizko irizpide demokratikoen aurkako eraso guztiak salatzen ditu. Ondorioz, eskubideen murrizketa eta salbuespen legeetan oinarritutako erabakiek arazoaren konponbidea baino gatazken areagotzea besterik ez dutela sortzen adierazten du”.

Giza eskubideen zapalketen aurka

Mozioa bozkatu aurreko adierazpenen tartean, azken puntu

honen esanahia ez zuela argi ulertzen esan zuen PSE-EEko zinegotzi Fermin Oruek. Ez zegoela ez alde, ez kontra. Gobernu taldeak, Xabier Arregi alkateak zioenez, osoko bilkura eraman zutena gai honen inguruko testu orokorra da. Zaila deritzo, konkrezio maila handietara jotzea, gaiak ertz asko baititu Arregiren hitzetan. Zalantzak sortu zituen mozioko puntu horri dagokionez, alkateak gogorarazten zuen, atentatuon aurrean, “giza eskubideen zapalketatik jo ordez, beste bi-deetatik jo daitekeela”.

Adierazpenekin batera, mozioko puntuka bozkatzea proposatu zuten gobernu taldeak. Denak ados zirenez, hala egin zuten. Honatx puntukako bozketen emaitzak:

1. puntua (atentatuen salaketari dagokiona): aho batez onartua.
2. puntua (giza eskubideen aurkako erasoari dagokiona): EHBildu eta EAJ-PNV alde. PSE-EE abstentzioa.
3. puntua (Udalak hartutako erabakia, herritarrei helaraziko zaiola aipatzen duena): aho batez onartua.

Hauteskundeetarako mahaikideak hautatzeko zozketa egin dute

Azaroaren 24ko osoko bilkuran izan zen. Abenduaren 20an mahaietan egotea tokatu zaizuenoi, egunotan helduko zaizue jakinarazpena. Gogoan izan, mahai bakoitza lehendakari eta bi bokalek osatuko dute, eta hauetako bakoitzak bi ordezko izango ditu. Honenbestez, mahai bakoitzeko 9 lagun hautatu dira. Guztira, 72 herritar arduratuko dira, herrian zehar jarriko dituzten 8 mahaiez. Honatx hauteskundeei lotuta, datozen deialdiak:

- Abenduak 10 arte: posta bidez bozkatzeko eskaera egi-tea (Correosen egin daiteke). Abenduaren 13a baino lehen: eroldan inskribatuta daudelako ziurtagiria eta botoa emateko hauteskunde-dokumentazioa bidaliko zaie, posta bidez bozkatzea eskatu duten hautesleei.
- Abenduaren 16ra arte: posta bidez bozkatzea eskatu dutenek, bozka emateko epea.
- Abenduak 20: bozketa eguna, 09:00-20:00 artean zabalik egongo diren hautesleketan.

Ika-mika

Abenduaren 6an... bildu Independentziara!

Euskal Herri independentea nahi dugun eta horren alde egunero lan eta borroka egiten dugun herritarrok hitzordu garrantzitsua dugu abenduaren 6an, Bilbon. Plaza Eliptikoa eta Arriaga lotzen dituzten kaleak gure herriaren burujabetzarako aldarriaren bozgorailu bihurtu beharra dugu guztion artean, eta horretarako dei zuzena egiten diegu EH Bildutik nahi eta desio bera konpartitzen duten milaka herritarrei.

Espainiako estatu antide-mokratikoari lotzen gaituzten

kateak askatu beharra dauzkagu. Inposizioari, ukazioari eta mehatxuari aurre egiteko indarrak bildu behar ditugu. Feminismoa, langileen eskubideak, euskaltzaletasuna, hezkuntza sistema propioa, bakezaletasuna oinarri bezala eraiki nahi dugun Euskal Herria egiteko, bildu beharra daukagu. Eguneroko borroka da hori. Baina abenduaren 6an, borroka horiek guztiak kalean batzeko eta guztiok batera aldarrikatzeko aukera paregabea izango dugu.

Gure herriak, euskal herritarren gehiengo zabal batek, herri-

tarren eskubideen errespetuan eta bizitza kalitate duinetan oinarritutako etorkizuna amesten du. Etorkizun alaia, koloretsua, konprometitua... Eta horixe izango da, hain zuzen, Bilboko kaleetan irudikatuko duguna. Manifestazio alaia izango da, koloretsua... Euskal Herriaren eta herritarren etorkizunarekin konprometitu dauden milaka herritarrek egingo duten aldarrikapen jaia.

Guztion artean indarrak bilduta lortuko dugu Euskal Herriak askatasunerako bidaia egitea. Guztion indarrak bilduta lortuko

dugu etorkizunari atea irekitzea. Guztion indarrak bilduta lortuko dugu Espainiako estatuaren inposizioa eta ukazioa gainditzea. Guztion indarrak bilduta lortuko dugu mundu zabalari erakustea bakean eta askatasunean bizi nahi duen herri oso bat dagoela erakustea. Guztion artean lortuko dugu herri eta herritar bezala ditugun ametsen bidean beste pauso bat ematea.

Abenduaren 6an beraz, indarrak independentziarantz bilduz, Bilbon ikusiko gara.

Udal adierazpena: “Euskaldun berrien ekarpena aitortu eta eskertu nahi dugu”

Abenduaren 3ko Euskararen Egunari begira, Usurbilgo EHBilduk adierazpen instituzionala aurkeztu zuen azken osoko bilkuran eta aho batez onartu zuen udalbatzak.

Adierazpenak, euskararen arnasguneak udalerrri euskaldunak direla gogorarazten digu, “hizkuntzaren transmisioan eta balio erreferentzian duten garrantziagatik. Euskararen gune hegemonikoak dira, eta baita eredu ere hain euskaldunak ez diren eremuentzat”.

Udalerririk euskararen arnasgune izaten segitzen badute, orain arte eragile eta erakundeek eginiko lanari eta hitzunen hautuari esker izan dela dio adierazpenak.

Testuan, Udalak bere kezka agertzen du, azken urteotan udalerrri euskaldunetan euskararen ezagutzan eman den behar bada dela eta. Eta legez hizkuntza ofiziala izan eta “euskaraz modu naturalean” aritu arren, “oraindik ere nahi baino esparru gehiagotan zailtasunak” badirela gogorarazten da.

Aurten bereziki, euskaldun berrien ekarpena aitortu eta eskertu nahi du Udalak adierazpen honen bidez. Euskaldun berriak sortzen segitzeko konpromisoa hartzen du. Etorkizunari begira gainera, “Udalak, euskaraz bizitzen segitzeko borondatea berretsi nahi du”.

Udalak 5 urterako hitzarmena izenpetuko du AEK-rekin

Bi aldeek, Usurbilgo Udalak eta Euskaraz Kooperatibak (AEK-k) 2005eko irailean 10 urterarako sinatu zuten hitzarmena berritzeko beharra ikusi dute. 5 urterako berrituko dute orain, azaroaren 24ko osoko ohiko bilkuran udalbatzak aipatu dokumentua aho batez onartu ostean.

Hitzarmen berri honekin, bi helburu nagusi bete nahi dituzte; “Euskaraz Kooperatibaren (AEK) aldetik, Usurbilgo udalerrian, eta bereziki, Usurbilgo biztanleriaren artean, Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze-lanen eskaintza sustatzea”. Usurbilgo Udalaren aldetik, “Euskaraz Kooperatiba Elkartearekin (AEK) dirulaguntza-erregimena, bestelako zerbitzuak (Mintzalaguna, autoikaskuntza eta euskara azterketak egitea) eta prekarioz laga-



Aho batez onartu zen EHBilduk aurkeztu zuen adierazpen instituzionala.

USURBILGO UDALA

“Euskararen arnasguneak udalerrri euskaldunak dira, hizkuntzaren transmisioan eta balio erreferentzian duten garrantziagatik”

tuko dion lokalaren erabilpena arautzea”.

Badaezpada, prekario hitzaren esanahia argitu nahi izan zuen Xabier Arregi alkateak. Bere esanetan, prekario hitzak ez dio erreferentzia egiten lokalaren egoerari edo baldintzei. Etorkizunean, Udalak AEK-ri utzitako lokala hartzera behartua egongo balitz, egoitza Uda-

laren esku geratuko dela adierazi nahi du. Alkateak argitu nahi izan zuen beste kontua; Udalak AEK-ri emango dion laguntza, HABEk emandakoaren osagarria izango dela.

Udala, Elhuyar Fundazioaren Patronatuko kide

Usurbilgo Udala Elhuyar Fundazioaren Patronatuko kide izatea, eta patronatu horretan parte hartuko duen udal ordezkari Xabier Arregi alkatea izendatzea onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz, azken osoko ohiko bilkuran. Udalbatzak hartutako erabakiaren berri, Elhuyar Fundazioari emango zaio.

Tratu onen eta parekidetasunaren alde

Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, mozioa aurkeztu zuen PSE-EE-k duela aste batez egin zen osoko ohiko bilkuran. Udalbatza osoak bat egin zuen bi puntu nabarmentzen dituen testuarekin. Batetik, tratu on eta parekidetasunaren alde, “politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko” konpromisoa hartzen du Usurbilgo Udalak. Eta herritarrei dei egiten die, “berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten,

urteko egun guztietan”. Gaitzespenik irmoena adierazten du mozioak, “emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko”. Gizarte egiturazko arazo bat izanik, bestelako jendarteak eraikitze beharra dagoela nabarmentzen da, erakundeetatik hasita. “Erakundeetatik gure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratu onak sustatuko dituen gizarteak eraikitze orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi”.

Gabonetako Haur Parkean lan egiteko kontratazioa zabalik

Egunotan egin behar da. Abenduaren 6a baino lehen, helbide honetara bidali kurrikuluma: monica_keima@sartu.org

Lan deialdian parte hartzeko ezinbestekoa izango da begirale titulua izatea eta baita EGA edo baliokidea den titulua ere. Udalak antolaturiko Gabonetako Haur Parkea, abenduaren 28tik 30era egongo da zabalik aurten, Oiardo Kiroldegian. Goizez 11:30-13:30 artean eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara.



Lan deialdian partehartzeko beharrezkoak dira begirale titulua izatea eta EGA edo baliokidea.

Aginagako Gabonetako Txokoak, izen ematea

Abenduaren 11ra arte zabalik dago, Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarreak eguberrietako oporraldirako antolatu dituen txokoetan izen emateko epea, aginaga@eskola-txikiak.org helbidean. Prezioa, izen emandako haur kopuruaren arabera zehaztuko da. Txokoak egunotan

izango dira; abenduaren 21, 22, 23, 28, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 4an eta 5ean. Goizez eta lau orduz, 09:00etatik 13:00etara.

Seaska egutegia salgai ikastolan

"Jakinarazi nahi dizuegu Iparralde-

ko ikastolek, egin ohi duten bezala, 2016ko egutegia (Seaska) salgai jarri dutela. Erosi nahi izanez gero, Ikastolako eta Haur Eskolako idazkaritzan egongo dira eskuragarri. Ale bakoitzaren salneurria 4 eurokoa da", Udarregi Ikastolatik berri eman dutenez.

Zuberoako ikastolen aldeko otarra eskatu orain, eta Santo Tomas azokan jasoko duzu

Abenduaren 10era arte eska daitzke, Nafartarrak antolaturiko elkartasun kanpainako otarra; NOAUA!n (943 360 321), edo tabernetan dauden zerrendetan. Tokiko produktuen salmenta sustatu eta Zuberoako ikastolak laguntzeko otarra abenduaren 20ko Santo Tomas Azokan ordaindu eta jaso ahalko dira:

Ahüzki otarra. Prezioa: 40 euro
Ardi gazta (900 gr), ahate gibela



Abenduaren 10ean amaituko da otarra eskatzeko epea.

(125 gr), bizkotxo poltsa "artisanala" (200 gr), eztia (500 gr).

Irati otarra. Prezioa: 52 euro
Ardi gazta (900 gr), ahate gibela

(125 gr), bizkotxo poltsa "artisanala" (200 gr), eztia (500 gr) eta axoa, xahalki xehatua saltsan (750 gr).

Informazio gehiago web orrialde honetan: ikaskoli.eu

Ettxerat lagun! izateko deia

Azken ostiraleko elkarretaratzean zabaldu zuten mezua; "Ettxeretek bere elkarteko atea zabaldu nahi ditu eta sentimendu hori konpartitzen dutenei gure elkarretea laguntzeko aukera eskaini". Ekarpenean ekonomikoa eginez bilgunea lagundu nahi duzenok, izen emateko inprimakia etxerat. eus atarian sartuta bete dezakete. 2016ko egutegiak salgai jarri dituzte baita, 5 eurotan. Sakanaketa amaitzea exijitzeko, zapikateak antolatu dituzte Giza Eskubideen Eguna izango dugun abenduaren 10erako, Baionan, Gasteizen eta Iruñean.

Marisa Alejandro eta Aitzagari elkartasunez

Ostegun honetan hastekoa da Espainiako Auzitegi Nazionalan, Ezker Abertzaleko 35 kideren aurkako epaiketa. Auziperatuen artean da Marisa Alejandro usurbildarra. Epaiketa hasi bezperatan, larunbat iluntzean elkartasun ekitaldia egin zen frontoian. Mobilizazioa, konfiskatze aginduaren zain den Aitzaga Elkarteari babesa adieratzeko ere baliatu zen.



Ostegunean hasiko da Marisa eta beste 34ren aurkako epaiketa.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Patri
Patri
Jatetxea
bazkariak EGUNERO
afariak. asteazkenetik larunbatera
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Herriko sortzaileen lanak topatuko dituzue Durangoko Azokaren 50. edizioan

Mende erdia bete du Durangoko Azokak. Aurten, abenduaren 4tik 8ra ospatuko da. 5 egunotan, 249 erakustoki bisitatze-ko aukera egongo da, 350 nobedade aurkeztuko dituzte eta denetariko 250 ekitaldi ospatuko dira.

Yolanda Arrieta, irekiera ekitaldian

"Argiaren alaba" (Autokoizpena, 2014) plazaratu zuen iaz eta lan horri esker Euskadi Saria eskuratu berri du.



Azoka egunetan, Denonartean-en stand-ean aurkituko duzue liburua. Azokaren inaugurazio ekitaldian, abenduak 4 ostirala arratsaldeko 19:00etan, liburuaren lagin bat irakurriko du Yolanda Arrietak.

Hotzikara taldearen "II"

Etxe koek azokan aurkeztu ditzaketen lanez gain, antolatu duten kultur egitarau zabalaren baitan ere, usurbildarrak topatuko ditugu abenduaren 4tik 8ra Durangora gerturatzeko bagara.



Batetik, Hotzikara musika taldeak aurten kaleratu duen "II" (Autokoizpena, 2015) lana aurkeztuko du kontzertu bidez. "Hotzikara 2008an sortu zen. 2011n "Hotzikara" argitaratu eta honekin zoko askotan gau izerditsiak pasa ditugu. 2015ean "II" sortu da, estilo desberdinaz baina Hotzikara berdin sortuz!".



Jose Luis Zumetak egin du 50. urteurreneko kartela.

Alex Telloren obra

Atea Teatro taldeak bestalde, "Ekoetikopatetikobikoa" antzezlan eskainiko du. Lan honen gidoilari eta zuzendaria usurbildarra dugu baita; Alex Tello. Otsailean, euskarazko formatu txiki-ko antzerki sorkuntza eta ekoizpena bultzatzeko sorturiko Donostiako Poltsiko Antzerkia programa irabazi zuen. Anabel Arraiza eta Jabier Rodil aktoreek parte hartzen dute antzezlan honetan.



internetetik doan banatzen den hilabetekari grafikoaren inguruko solasaldia eta berrikuntzen aurkezpenera" iragarri dute.

Jakoba Errekondo, "Bizi baratzea"

Liburuak sinatzen ere aurkituko dugu usurbildarrik. Arrakasta itzela izan duen "Bizi baratzea, garaian garaikoa garaiz eman eta hartu" (Argia, 2015) liburuaren egilea: Jakoba Errekondo. Baratzearen abenturan murgiltzeko grina daukatenez gida ezin hobe, baita dagoeneko lehen urratsak eginda dituztenentzat ere.



"Bizi Baratzea" liburuak stand propioa izango du Azokan. Egunero kontsultategia eta liburuak sinatzeko aukera egongo da. Abenduaren 8an Ilargiaren egutegia aurkeztuko da, 16:30ean; eta Pello Zabala izango da ekitaldiko gonbidatua.

Azokan, zuzenean

Abenduak 4 ostirala, 19:00

San Agustin Aretoan: Inaugurazio ekitaldia San Agustin Aretoan, Yolanda Arrietaren irakurraldia.

Abenduak 4 ostirala, 19:30

Areto Nagusian: Jakoba Errekondoren Bizi Baratzea (Argia, 2015) liburuaren aurkezpenera.

Abenduak 5 larunbata, 15:00

Ahotsenean: Hotzikararen saioa.

Abenduak 6 igandea, 13:00

Szenatokian: Atea Teatrotoren "Ekoetikopatetikobikoa".

Abenduak 6 igandea, 18:30

Kabi@n: H28 hilabetekari satiriko digitalaren aurkezpenera.

Informazio gehiago: durangokoazoka.eus

Euskarazko Produktuen Katalogo berria, kalean

18. ediziora heldu den katalogoaren 120.000 ale banatu dituzte egunotan, egitasmoan parte hartzen duten Euskal Herriko 140 bat udal (tartean Usurbilgoak) eta mankomunitateetako euskara zerbitzuek. Horietatik mordoaxka bat, Usurbilen, ikasleen artean. Aurten, 12 urte artekoie banatu zaie papereko edizioa.

Papereko edizioaz gain, sarean ere atari propioa du Euskarazko Produktuen Katalogoak: katalogoa.eus

ARTZABAL
Baserría - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.com

EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK


Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Familia ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)



TALASOTERAPIA ETA HOTELA DEBAKO AISIAN...

- Itsasoko ura modu terapeutikoan erabilia. Bere ezaugarriek, alga, lokatz, eta gatzekin batera, gaitz ezberdinak saihesteko balio dute. Onurak ugariak dira; nabarmenen artean, eragin analgesikoa du, min orokorra nahiz gure gorputzeko zonalde zehatzeko mina murrizten baitu.
- **HOTELAREKIN ESKAINTZA BEREZIAK:** Asteburuko edo gau bateko eskaintzak (gaua, pentsio erdia, masajea...), talaso + **MARISKADA** + gaua ...



Markiegi Kalea 6 DEBA (Gipuzkoa) 943 60 80 52 deba@aisiahoteles.com

Bidelari berriei gorazarre,

Euskaldun berri edo bidelariak omendu eta eskertu nahi dira aurtengo abenduaren 3ko Euskararen Egunean, euskarari egiten dioten ekarpenagatik. Ez baita gutxiagorako, egiten duten ahalegina. Bi herritarren lekukotza hauek, horren guztiaren adierazgarri.

Carolina Muñoz: “Euskara ikasteak zentzu praktikoa du”

Cadiztarra, duela 4 urte heldu zen Euskal Herrira. Eta argi zuenez, astirik galdu gabe euskaltegian euskara ikasteari ekin zion. Gogotik ahalegindu da ordutik, ikasitakoa erabiltzen, bidelagun dituen AEK-ko kide, eta inguruko laguntzaz. Erronka berri bat ere badu aurtengorako Carolina Muñoz herritarrek, lerrootan azaldu digunez.

Nolatan hasi zinen euskara ikasten?

Carolina Muñoz: Euskal Herrira heldu eta Oriora joan nintzen bizitzera. Euskara ikasteko asmoa nuen hasieratik. Urtarrila amaieran heldu eta AEK-n galdetu nuen. Migranteentzako Zumaian antolatu zuten ikastaro batean parte hartzeko aukera nuela esan zidaten. Otsailean hasi nintzen euskaltegian. Euskararekiko lehen hartumana izan zen hura.

Nolakoa izan zen abiapuntua?

Ikasi genuen euskara, nolabait “biziraupenerako” zen; oinarritzko esaldi tipikoak, erabilgarriak, helbideak eskatzeko, norbere datuak emateko... Hurrengo ikasturtean, gramatika eta aditzak gehiago lantzen hasi ginen.



“Irakasleek lan bikaina egiten dute, gu animatu eta motibatzen”.

CAROLINA MUÑOZ

“Hizkuntza, herri baten nortasun zeinu nagusia da. Leku batean bizi eta pena da norberak bere buruari bertako kultura parte hartzeko aukera ez ematea”

Zaila zen neuretzat, ezagutzen dudanarekin zerikusirik ez duen hizkuntza bat baitzen. Halere, irakasleek lan bikaina egiten dute, gu animatu eta motibatzen.

Irakasleak ez dira edukien transmisore hutsak?

Hizkuntzan eta euskal kulturaren murgiltzen laguntzen dute. Baserri motak, eguraldia, musika, hemengo betiko abestiak jarri izan dizkigute, guk itzultzeko. Denetarik. Pixkanaka euskal kulturaren murgilduarazten gaituzte. Lanketarako ikuspuntu guztiz egokia da.

Lau urteotan, zer ekarpen egin dizu euskarak eguneroko bizimoduan?

Euskara ikasteak zentzu praktikoa du. Erosketak egitera noanean edo kaleko bizitzan beti euskaraz mintzatzen ahalegintzen naiz. Etxean ere euskaldun zahar batekin bizi naiz. Euskara ge-

roz eta gehiago erabiltzen ari naiz. Lagunartean ere euskaraz hitz egiterakoan, jada ulertzen dut zertaz ari diren, elkarrizketetan parte hartu dezaket.

Ingurune euskalduna duzu beraz?

Ia ezagutzen dudan jende guztia euskalduna da, hori oso lagungarria da. Lagunak ere baditut, nik soltura gehiago izan dezadan, euskaraz propio hitz egiten dutenak.

Euskara ez jakitea muga handia zen harremantzerakoan?

Mugatu baino, neronek jartzten dut muga. Ni naiz euskaraz hitz egiteko soltura izan nahi dudana. Ikasturte honetan, erronka bat jarri diot neure buruari; lehen mailako profilerako azterketara aurkeztea. Eta bide batez, horrekin bultzada bat ematea euskarari. Neure helburua halere kalean euskara erabiltzea da.

Euskararen Eguna ospatuko duzu?

Bai, taloa janez. Euskaltegiak urtero ekimen bereziren bat antolatzen du. Euskaltegiokoein elkarteren batera goaz taloak egiten ikasi eta jatera.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ALDAMU
KONPONKETAK

KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Euskararen Egunean

Eva Tames: “Seme-alabek euskaraz hitz egitea nahi badugu, gu izan behar gara eredia”

Familia bidezko hizkuntza-transmisioak duen garrantziaren adibide argia dugu Eva Tames herritarra. Txikitan euskaraz bizitzeko zailtasun ugari izan ostean, euskara egoki erabiltzeko trebatzen ari da euskaltegian. Helburu argi batekin; euskara maila hobetu eta 5 urteko alaba laguntzeko.

Euskaltegian zabilta, baina euskaraz hazitakoa zara?

Eva Tames: Ama euskalduna da, Azpeitiakoa. Etxean beti gurekin euskaraz hitz egiten saiatzen zen. Aita aldiz erdalduna. Txikitan urte piloa bizi izan ginen Trintxerpen. Han euskal girorik ez zen duela 30 bat urte. Etxean gure artean euskaraz zerbait hitz egiten saiatzen ginen. Baina aitarekin errazena erdaraz hitz egitea zen.

Euskara galtzera iritsi zineten gero?

Galtzera edo gaizki ikastera. Txikitan ikastolan hasi ginen ikasten. Baina aitak istripu bat izan zuen, eta ikastolatik 4 anai arrebok atera behar izan genuen. Eskola publikoetan hasi behar izan ginen. Garai hartan oso gutxi ematen zen euskara. Geroztik Juan Luis ezagutu nuen, usurbildarra da. Duela 5 urte etorri ginen Usurbilera bizitzera. Alaba bat dugu, 5 urtekoa. Ulertu, beti



“Lau urte daramat euskaltegian eta piloa ikasi dut”.

EVA TAMES

“Lagungarria egin zait haur txiki bat izatea. Haur txikiekin parkera joan eta jendarekin harremanetan izaten zara”

ulertu izan dut dena. Baina banekien gaizki hitz egiten nuela. Euskaltegian eman nuen izena, autoikaskuntzan.

Euskara hobetzeko?

Hobetzeko eta ikasteko ere bai. Aditzekin arazo handia nuen, ergatiboekin. Hiztegia ere falta nuen. 4 urte daramat euskaltegian eta piloa ikasi dut. Ahal dudan neurrian saiatzen naiz hobetzen. Alabagatik egiten dut, ze badakit denborarekin lagundu beharko diodala.

Euskara ezagutu bai, baina ez omen dugu hainbeste erabiltzen. Zuk halakorik sumatzen duzu?

Familia bazkari batean, hizketan hurrek erdararako joera zutela zioten. Denak euskaldunak izanda, eta erdaraz ari ziren. Esaten nien, seme-alabek euskaraz hitz egitea nahi badugu, gu izan behar gara eredia.

Autoikaskuntzan ari zara. Diziplina handia eskatuko dizu?

Hala da. Ahal dudana egiten dut. Halere neure helburua ez da perfil bat ateratzea, hobeto hitz egin eta idaztea baizik.

Eta alaba laguntzeko?

Bai noski. Niretzat errazena, ikastolan bilerak erdaraz izatea, edo ikastolaren aldizkaria gaztelaniaz jasotzea izango zen. Baina euskaraz saiatu beharra dugu.

Euskararen Eguna, ikastetxeetan

Abenduak 3, osteguna

■ 11:45 HH/LH eta Aginagako Eskolako euskal abestien emanaldia frontoian.

■ 15:00 Udarregiko talde bat (LH2. maila) Zubietara joango da bertako Eskolakoekin jaia ospatzera.

■ 16:15 Gurasoei abestuko diete HH eta LH-ko 1. ziklokoek, Agerialdeko frontoi txikian.

Oharra: behin behineko egitaraua.

Udal zerbitzuetan, jai

Usurbilgo Udalak jai egun izendatua du Euskararen Eguna. Honenbestez, udal zerbitzuak itxita aurkituko dituzue ostegunean.

Hitz edo esaera gustukoenaren bila

Ostegun honetan ospatuko da #EuskararenEguna. Zein da zure hitz edo esaera gustukoena? Idatzi NOAUA!ren sare sozialetako horman edo helarazi email bidez, erre-dakzioa@noaua.eus helbidera.

Datorren asteko NOAUA! aldizkarian batuko ditugu denak.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

KONSTELAZIO
FAMILIARRAK

FAMILI ETA ESKOLAN BIZI ETA ELKARBIZI
BALIABIDE SISTEMIKOAK
(HILERO LARUNBAT BATEZ)
688 865 708 AMASA

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008


ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

IPUIN FAKTORIA

“Esan liteke ipuina dela kontratu bat, haurra eta heldua lotzen dituena.”

IPIIN FAKTORIA 00: ZOZOMIKOTEAK




Egilea: Jexux Eizagirre Portillo
Ilustrazioak: Alai Zubimendi
Hizkuntza: Euskara
Prezioa: 12 € / Bazkideak: 10 €

Artzain batek ardi ugari ditu. Nequan ikaratu egiten da, eta erregutu egiten dio ez dadila gogorra izan, bestela ardiak galduko dituelako. Nequa gupidatu egiten da. Baina nequa pasatzean, buria eta iseka egiten dio. Orduan neguak...

Zozomikoteak, harrokeriaren inguruko ipuina da.

IPIIN FAKTORIA 01: CHERTAT ETA LEHOIA



Egilea: Jexux Eizagirre Portillo
Bertsio arabiarra: Cheij Ahmed Bahia
Ilustrazioak: Abdi Ami Omar
Hizkuntza: Euskara + Arabiera
klasikoa
Prezioa: 15 € / Bazkideak: 12 €

Ipuina sahararra da. Chertatek eta lehoiak tratu bat egiten dute. Baina tximua sartzen da tartean, eta...

Ipuin honen bidez erakusten da zer nolako kalteak sortu ditzakeen tratu on eta justu bat hansteak.

Larramendi 11, behea HERNANI 943 33 27 99 www.dobera.eus dobera@dobera.eus

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

Santo Tomas eguna ospatzeko deialdia



Noaua!k baserritar guztiak gonbidatu nahi ditu

Herritarren sagardoa dastatzeko eta babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste. Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren **igande** goizez **20an**



Herrian erosketak egiteko, Usurbil txanpona

Bazetorrela iragartzen ari ziren Hurbilago Elkartekoak. Hemen da azkenean, tokiko ekonomia sustatzera datorren tresna berria; Usurbilgo txanpona. Herrian, herriko saltokietan erosketak egiteko aukera eskainiko du, beherapen eta guzti. Mugi, Hurbilago Elkartetik berri eman dutenez, mila txanpon jarriko baitituzte zirkulazioan, ga-bonak pasa bitarte.

Gero, txanponen erabilera zabalten joango dira. Hori ordea eguberrien ostean izango da. Egunotara itzulita, asteazken honetatik 10 euroko mila txanpon dituzue eskuragarri Hurbilago Elkarteko 6 saltokiotan; Alkartasuna Kooperatibian, Esnaola janari dendan, Ivan Perez argazki estudioan, Lurda mertzerian, Marije arropa dendan eta Usurbil Optikan. Guneotan guztietan, 10 euroko txanpon bakoitza 9 euroren truke erosteko aukera izango duzue; beste modu batera esanda, %10eko beherapenarekin. Txanponok, Hurbilago Elkartekoak diren edozein establezimenduetan erosketak egin ahalko dituzue urtarrilaren 5era arte. 10 euroko erosketa bakoitza, 9 eurotan; lehen aipatu moduan, %10 merkeago.

Hurbilago Elkartek hamarrek mila txanpon baino ez ditu jarriko



Urtarrilaren 5a bitarte, 9 eurotan 10 euroko txanpona eskuratu ahal izango da.

HURBILAGO ELKARTEA

**“Txanpon hauekin,
Hurbilago Elkartekoak
diren edozein
establezimenduetan
erosketak egin ahalko
dituzue urtarrilaren
5era arte.
10 euroko erosketa
bakoitza,
9 eurotan;
%10 merkeago”**

merkatuan. Honenbestez, herritar-
rrak mugitu daitezela agortu baino
lehen. Ohar garrantzitsua; txanponok
erosi ondoren, urtarrilaren 5era
arte erabili ahalko dira.

2016tik aurrera, sariak txanponetan

Urtarrilaren 6tik aurrera, txanpon
berriak beste funtzio bat beteko du.
Hilero, bigarren igandeetan ospatu
ohi den Tipi-Tapako lehen saria,
Hurbilago Elkarteko saltokietan
xahutzeko 150 euroko erosketa ba-
lea izan ohi da. Bestalde, Hurbilago
Txartela aipatu establezimendue-
tako erosketetan erabiltzerakoan
ere promozio edo zozketetako sa-
riak bale moduan eman ohi dira.

Aurrerantzean ordea, txanponak
ordezkatuko ditu erosketa baleok.
Hurbilago Elkartek emandako sa-
riak txanponetan jasoko dira. Sariak
ematen joan ahala honenbestez,
txanponen mugimendua handit-
zen joango da. Azkenean, helburua
“zirkulazio hori zabaldu eta herriko

bertako salerosketak indartzea da.
Bai herritarrek bertan saltzeko, bai
herritar horiei saltzen dieten esta-
blezimenduek ere herrian bertan
erosteko, etxerako nahiz saltokirako
behar dutena”.

Txanponaren erabilera, faseka

■ Abenduak 2-urtarrilak 5:
txanpona erosketa deskontuare-
kin. 9 eurotan 10 euroko txanpo-
na eskuragarri.

■ Urtarrilaren 6tik aurrera:
erosketa baleak desagertu eta
sariak txanponetan ematen ha-
siko dira.

Txanponak, eskuragarri

■ Txanponak, 6 saltokietan es-
kuragarri: Alkartasuna Koope-
ratibian, Esnaola janari dendan,
Ivan Perez argazki estudioan,
Lurda mertzerian, Marije arropa
dendan eta Usurbil Optikan.

■ Prezioa: 9 euroren truke, 10
euroko txanpon bat.

■ Oharra: erositako txanponak,
urtarrilaren 5era arte erabili ahal
izango dira.

Jende ugari batu zen urteko iganderik eztienean

A spaldiko Erle Egunik jende-
tsuena izan da aurtengoa.
Eguraldi onak zerikusirik
izango zuen horretan. Paseatzeko
giro zegoelako aurreko igandean.
Ohi bezala, ezti eta erlegintza ar-
loko bestelako produktuak erosteko
aukera baliatu zuten herritar askok.
Bien bitartean, epaimahaikideak
aurtengo ezti onenak dastatzen
(eta bozkatzeko) aritu ziren. Eta fes-
ta biribila izateko, buruhandiak eta
erraldoiak ibili ziren kalejiran, gaz-
tetxoer pozerako.

Gozo onena, Olatz Goenagarena
Lehiaketa gehiago ere izan zen.



Argazkian, alkatea eta marrazki lehiaketan sarituak izan zirenak.

Gozogintzarena. Oraingoan ere,
etxean geratu da lehen saria. Olatz
Goenagaren postrea izan da epai-
mahaikideentzat gozoena. Bigarren
sailkatu zen Kandi Orosa. Gainon-
tzeko sarituak hauek izan dira.

2015eko ezti onenak Ezti argia

1. Leire Arizaga, Hernani
2. Joan Maria Arabolaza, Oiartzun

Ezti iluna

1. Igor Merino, Barakaldo
2. Beñat Elorza, Zerain

Mila loreko ezti

1. Joxe Martin Beobide, Zizurkil
2. Iñigo Erauskin, Berrobi

413, zenbaki saritua

Erle Egunean egin zen zozketan,
413 izan zen zenbaki saritua.

Aurrekontuen eta gobernu programaren inguruan bilera erronda hasi du udal gobernu taldeak

2016rako udal aurrekontuak eta legegintzaldirako Gobernu Programa aurkeztu eta herri eragileekin partekatu nahi ditu Usurbilgo Udalak, asteotarako deitu duen sektorekako bilera erronda baten bidez. Saiotan ekarpenak egiteko aukera izango dute eragileetako ordezkariak. Bilera guztiak, gogoan izan, Udaleko pleno aretoan egingo dira. Honatx datozen hitzorduak:

■ Abenduak 4, ostirala: 18:00etan parekidetasuneko eragileekin.

■ Abenduak 4, ostirala: 19:00etan, jubilatuko elkarteekin.

■ Abenduak 9, asteazkena: 19:00etan, Kultura, Euskara eta Gazteria alorretako eragileekin.



Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan elkartuko dira jubilatuko elkarteekin. Bilera denak udaletxean izango dira.

■ Abenduak 15, asteartea: 13:30etan Merkataritza-ostalaritza eragileekin.

■ Abenduak 16, asteazkena: 19:00etan Garapen sozio-eko-

nomikoan dihardutenekin.

Bileren tokia: Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoa.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

2016rako mendi ibilaldiak proposatzeko deia zabalik da

Andatza M.K.T.-koek herritarren laguntzarekin antolatu nahi dituzte urte berrirako planak. “2016ko mendi irteeren egitaraua prestatzen hasi behar dugu eta ibilbideak proposatzea eskertuko genuke. Buruan duzun mendi irteera hori aurkeztu ezazu ahal den xehetasun eta ezaugarriekin; kroka edo mapa, ibilbidearen luzera, abiapuntua, amaiera tokia eta igarotzen diren lepo edo gailurrak, oso datu interesgarriak dira ibilaldia aurkezterakoan”, ohartarazi dute Andatzakoek.

Irteeraren bat proposatu nahi duenak, ekarpena egite-



Txaldatxurreko lubakietan izan ziren larunbatean, Mendi Astearen baitan.

ko hiru bide ditu: andatza@hotmail.com helbidera idatzita, Andatzakoen egoitzako postontzian utzita edota ostegun arratsaldeko 19:00etan,

udaletxe ondoko garai bateko DYako egoitzara gerturatuta. Astero bertan eta ordu horretan biltzen baitira mendizale taldekoak.

Abenduak 20ko hauteskundeak, EHBilduren deialdiak

Ostiral honetatik aurrera bi asteko tarte dute eragile politikoei, herritarrei abenduaren 20rako bozka eskatzeko. Usurbilgo EHBilduk, hitzorduak iragarri ditu:

Abenduak 4, ostirala

■ 19:00 Kartel pegada, frontoitik abiatuta.

Abenduak 6, igandea

■ 10:00 Autobus zerbitzua Bordatxo aurreko errotondatik, EHBilduren Bilboko manifestaziora. Izen emate zerrendak, Txiribogan, Aitzagan eta Bordatxon.

Abenduak 11, ostirala

■ 19:00 Ekitaldi politikoa frontoian.

Abenduak 17, osteguna

■ 19:00 Kotxekarabana Oiardo Kiroldegitik abiatuta.

Abenduaren 8an, Odol Emaileen Eguna

Ohi bezala, abenduaren 8an ospatuko da herriko odol emaitzen eguna, Patri jatetxean egingo den bazkarian. Otordurako izena aurrez eman behar da, telefono zenbakiotako bategatik: 943 366 040/610 681 563 (Maite), 943 372 487/646 185 716 (Mari Sol), 943 370 723/678 242 132 (Jero), 943 363 102/688 887 537 (Agustina).

Abenduaren 12an, Jostailu Erabilien Azoka

Abenduaren 12an egingo da azoka baina jostailuen bilketa abenduaren 10ean eta 11n izango da, 17:00-19:00 artean Sutezik erakustaretoan. DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan eta jostailuek osorik egon beharko dute. Nahi duenak, utzitako materiala beste jostailu batzuegatik trukatzeko txartela jaso ahal du.

Lau finaletan, lau txapela irabazi

Asteburu borobila Pagazpe Pilota Elkartearena. Gipuzkoako Txapelketako lau final jokatzeko sailkatu ziren eta lauretan Usurbilgo pilota elkartea nagusitu zen.

Jubenil 1. mailan:
Pagazpe 22 Gazteleku Andoain 7

Nagusiak 1. maila:
Pagazpe 22 Tartaloetxe Zegama 12

Nagusiak ohorezko maila:
Pagazpe 22 Aurrera Saiaz Tolosa 5

Pala goma 1. maila:
Pagazpe 25- Zarautz 21



Nagusiak 1. Maila. Xabier Urbietta eta Ander Quina.

Babesleei, esker onez

Ikasturte osoan laguntzaile dituztenei eskerrak eman nahi dizkiete Pagazpeko ki-deek: Usurbilgo Udala, Usurbilgo Kirol Patronatoa, Agi-

naga sagardotegia, Saizar sagardoa, Alkartasuna Base-rritarren Kooperatiba, Bordatxo edaritegia, Kima masaia lekua, Easo, Hurbilago, Bruño mariskoak.



Pala goma 1. Maila. Xabier Errasti eta Imanol Esnaola.



Nagusiak Ohorezko Maila. Xabier Santxo eta Aitor Gorrotzategi.



Jubenilak 1. Maila. Aitor Aranguren eta Hodei Exposito.

Euskal Herriko Elkartearen Arteko Pilota Txapelketa

Abenduak 3 osteguna
20:00etan Usurbilen
Azken zortzirenak, Pagazpe-Soraluze

Eskuz binaka nagusiak:
PAGAZPE-SORALUZE

Eskuz banaka lau t'erdian:
PAGAZPE-SORALUZE

Eskuz banaka kantxa osoan:
PAGAZPE-SORALUZE



Argazkian dira Peña Zubeldiaren ospakizunarekin bat egin zuten lagunak. Tarteetan, Haimar Zubeldia txirrindularia bera.

Hautagaitzak aztertzeko, Usurbil K.E.-ren bilera

Abenduaren 2ra arteko epea zuten interesdunek, Usurbil K.E.-ren zuzendaritzako hautagaitzak aurkezteko. Eskubaloi taldeak biltzen dituen elkartearen baitan osatu den hauteskunde batzordea, ostegun honetan biltzeko da, "aurkeztutako hautagaitzak baliozkoak diren ala ez zehazteko, behin behinean".

Eskubaloia Kiroldegian

Abenduak 5, larunbata
10:30 Kadete neskek, Euskal Liga (atzeratutako neurketa):
Usurbil K.E. "A"-Pneumax Elgoibar.

Abenduak 6, igandea
09:15 Alebin neskek, errendimendua
Gipuzkoako Txapelketa:
Usurbil K.E.-Pulpo
10:15 Alebin mutilak, errendimendua
Gipuzkoako Txapelketa:
Usurbil K.E.-Pulpo

Errifa zozketa
9076 izan da errifa zozketako zenbaki saritua. Marije arropa dendarako 50 euroko balea egokitu zaio.

Madrilera, eskubaloi selekzioarekin

Prestakuntza saioa Cosladan (Madrilen) izango da, abenduaren 6tik 7ra. Infantil mutiletan, Eneko Furundarena; kadete mutilen euskal selekzioan, Eneko Iribar Zumeta; jubenil nesken selekzioan Ane Irazabal Esnaola eta Estitxu Berasategi Eizagirre; azkenik, jubenil mutilen euskal selekzioan, Mikel Atxega Arruti.

Futbola Haranen

Abenduak 5, larunbata
11:00 Kadeteak:
Usurbil F.T.-Hernani C.D.

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskoinet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA

Salgai

Askatasuna plaza aldera ematen duen etxebizitza eta garaje marra salgai Kaxkoan. 3. solairua. 80 metro koadro, 3 logela, 2 komun, sukaldia, jantokia, egongela eta 24 metro koadro trasteroa. 269.000. 943 916 834.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldia jantokia aparte duela. 605 707 642.

Txaramunto kalean etxebizitza salgai. Hegomendebaldera begira. 98 m2 + balkoia, egongela/jangela eta sukaldia. 3 gela. 2 komun. Garajea eta trastelekuak aukeran. Iker (686912979)

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teila-aren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldia, komuna eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldia eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldia. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, trastelekuak. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldia. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldia egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Pisu bat Atxegalden, 3 gela, sukaldia, egongela, 2 komun. Dena kanpoaldera, 3 balkoiekin. 658 756 344.

Alokatzeko pisu bila nabil. Telefono zenbakia: 615730680

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobea. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil

bil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatze 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra utzeko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketara lanak egiten, jabetxeren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldian, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferen-

tziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketara, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketara egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere



Zorionak Nora! Aurten 7 urte eta dagoneko hortzak falta... Hala ere, txutxeko milaka muxu bidaltzen dizkizugu familia osoraren partez.



Zorionak Axier! Abenduaren 4ean, 8 urte egingo dituzu. Oso ondo pasa egun zoragarri horretan. Senide eta zure lagunaren partez... Muuuuuuuak!

OHARRA: Abenduaren 11n aterako dugu hurrengo NOAUA! astekarria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: abenduak 5 larunbata. E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiket... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-ekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelarekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritza, garbiketari... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketari, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelarekin egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titulua-ekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat

lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketari industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketari lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

teko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua-ekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeko garbiketari, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat

galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriban eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 2015 uzta. Tel: 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bi "artzai txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Giltza batzuk agertu dira Bizkartzon. Galdu dituenak pasa NOAUA!tik, bertan ditugu eta.

Eguzki-elkartean bazkide egiteko aukera. Tel 677 62 14 65

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUA!n edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailean Zubietako Lertxundi gainan aurkitu niren betarreko batzuk: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 03	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 04	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 05	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 06	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 07	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astearte 08	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteazkena 09	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Abenduak 3 - abenduak 13

Osteguna 10	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 11	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata 12	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 13	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda abendua

04 ostirala

- **Bilera erronda: Udala-jubilatu elkarteak** 19:00etan Udaletxean.
- **Antzerkia Aginagan: "Ondoko hilobiko tipoa"**: 22:00etan Aginagako Eliza Zaharrear.

05 larunbata

- **10:30 Kadete neskak, Euskal Liga (atzera-tutako neurketa)**: Usurbil K.E. "A"-Pneumax Elgoibar.
- **11:00 Futbola Haranen, Kadeteak**: Usurbil FT-Hernani CD.

06 igandea

- **09:15 Alebin neskak**, errendimendua Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Pulpo
- **10:15 Alebin mutilak**, errendimendua Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Pulpo
- **Irabazle eta galtzaile** filma Sutegin. 17:00.

"Ondoko hilobiko tipoa" antzezlan, ostiral honetan Aginagan

Ostiral honetan 22:00etatik aurrera, Aginagako Eliza Zaharrear, Antxomolantxa Elkartearen eta Aginagako San Praixku Guraso Elkarteko eskutik. Sarrerak egunean bertan salgai, 5 eurotan. Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktore ezagunek hezurmituko dituzte antzezlan honetako pertsonaia nagusiak. Txalo Produkzioak-en antzezlan Be-goña Bilbaok zuzendurikoa da.

"Zeinek esan... Neska pinpirina baserrian! Eta baserritar bat operan? Biak oraindik gazteak. Aiora: polita, gozoa eta alarguna. Pablo: zekena, egoskorra eta ezkongabea. Bi mundu ezberdin leku berean. Bata bestearen ondoan, kanposantuan. Aiora eta ondoko tipoa... Pablo. Maila sozial eta kultural ezberdinak aurrez au-



Ostiral honetan, gaueko 22:00etatik aurrera Aginagako Eliza Zaharrear.

rre. Irribarre leun bat, ordea, nahikoa izango da bi protagonisten arteko sua pizteko. Ezinezkoa litzatekeena posible egingo duen istorio zoragarri honetako sua".

Igande honetan, haurrentzat filma Sutegin

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin elkarlanean antolatuta duen euskarazko zine zikloaren baitan, "Irabazle eta galtzaile" filma Sutegin. Igande honetan, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. 7-12 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendurik dago. Sarrerak egunean bertan salgai 3 eurotan.

Asteazkenean, gaztelarazko literatura topaketa

Abenduaren 9an 19:00etan Sutegi udal liburutegian. "Jesus Carrascoren Intemperie liburua inguruan jardungo dugu, eta gidaria, oraingo honetan, Ana Merino usurbildarra izango da. Parte hartzeko interesa duen edonorentzat, liburuak iada eskuragarri daude liburutegian".

Datozenak

Artzabalgo pintura ikastaroko erakusketa

Artzabalgo pintura ikastarokoekin eginiko lanak ikusgai izango dituzue eraikin bereko jatetxean hilabetez. Gabonak pasa arte.

Gaztelekua, gabonetako aisialdi ekintzei begira

Gabonetarako ekimen eskaintza zabala presatuta du Gaztelekuak 12-16 urte arteko gazteentzat. Hasteko, abenduaren 12an material birziklatuekin musika instrumentuak egiteko tailerra antolatu dute 16:00etan frontoian, DBH 1.mailako taldekoentzat.

Abenduaren 12an Dilistak eta Anabasa

II. Jaialdia

- 12:00 Lenteja txapelketa: "parte hartzaileek suak piztu eta prestatzeari ekingo diote. Baldintzak hauek izango dira: eltzea eta barazkiak zuen kontu; sua, lentejak, olio eta gatza gure kontu; beganoa izan beharko du".
- Ondoren, probatzaileek sari banaketa egingo dute bertso bidez eta bazkari herrikoia egingo da prestatutakoarekin.
- Arratsaldean, sorpresak; "kontu ibili, edozer gerta daiteke!!!!".
- 20:00etatik aurrera, kontzertuak Gazte-txean.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende **langilea**,
lana sortu eta gure kaleak **bizirik** mantentzen dituena.

HERRIKO DENDEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



Usurbilgo txanponarekin ordainduta, %10 MERKEAGO!

10 euroko erosketa balioa izango duten 1000 txanpon banatuko ditu Hurbilagok, 9 euroren truke. Txanpon horiekin 2016ko urtarrilaren 5era arteko erosketak ordaindu ahal izango dira.

Txanponak non ESKURATU? ALKARTASUNA kooperatiban, ESNAOLA janari-denda, IVÁN PÉREZ Argazki Estudioa, LURDA mertzeria, MARIJE arropa-denda edo USURBIL OPTIKAN

10eko txanpona = 9 € (1000 txanpon agortu arte)

NON ERABILI? Hurbilagoko edozein establezimendutan: Aginaga Sagardotegia / Aitzaga Taberna / Aizpunia Okindegia / Aldamu Konponketak / Alkartasuna Kooperatiba / Ane Ite-apaindegia / Argilan Etxerako Tresnak / Arruti Harategia / Artzabal Baserria - Jatetxea / Atxega Jatetxea / Bixen Ite-apaindegia / Bordatxo / Elexpe Ite-apaindegia / Enar Estetika / Eroski City / Errazkin Bizikletak / Esnaola Janari-denda / Esnaola Lurrin-denda / Imanol Txapartegi Harategia / Intza Ite-apaindegia / Iratze Natur Denda / Iturralde Botika / Itzira Eraikuntzak / Ivan Perez Argazkiak / Juantxo Burdindegia / Kafia Kafetegia / Kentuene Jatetxea / Laurok / Laukote / Lizardi / Loli Lizarralde Estilista / Lurda Mertzeria / Marije Arropa Denda / Mikel Arrandegia / ni Ite-apaindegia / Opi Goxo / Otar-Goxo janari-denda / Pauma / Pello Arrandegia / Saizar / Toby Ingeles Akademia / Txalaka Fruta-denda / Txiriboga / Txirristra / Txirinbolo jostailu denda / Usurbil Optika

NOIZ ARTE? 2016ko urtarrilak 5 arte.



Hurbilago Udala

hurbilag